



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

NAZHA EL-KHALIDI SAHARAR AKTIBISTAK ETA KAZETARIAK MENDEBALDEKO SAHARAN BIZI DUTEN ERREPRESIO-EGOERAREN BERRI EMAN DU BIZKAIKO BATZAR NAGUSIETAN

- **Duela hilabete batzuk, kazetaria kalean eraso eta atxilotu zuten mugikorrarekin manifestazio bat emateagatik. Nazha El-Khalidiki zona okupatueta duten informazio-blokeoa eta jasaten ari diren giza eskubideen urraketa salatu ditu.**

(Bilbon, 2019ko azaroaren 29an).- Bizkaiko Batzar Nagusietako Ana Otadui Lehendakaria eta alderdi politiko ezberdinetako ahaldunak Nazha El-Khalidi saharar aktibista eta kazetariarekin bildu dira Batzar Nagusiek Bilbon duten egoitzan. Kazetaria El Aaiúnen jaio eta bertan bizi da (Mendebaldeko Saharako marokoar okupazioko herria), eta lanbide horretan ari da 2010. urteaz geroztik, RASD TVren berriemailedu gisa; era berean, Equipe Media talde independistako kidea ere bada.

Nazha El-Khalidi aktibistak eta kazetariak Bizkaiko Batzar Nagusietara egindako bisitaren bitartez, zona okupatueta jasaten ari diren informazio-blokeoa eta Marokoko gobernuaren aldetik Mendebaldeko Saharan duten giza eskubideen urraketa salatu ditu. Nazha El-Khalidirekin batera izan dira Euskadiko Fronte Polisarioeko delegatua den Abdulah Arabi, Euskadin bizi den Aichetu Yeslem Beissat sahararra eta Euskal Fondoako kideak.

Nazha El-Khalidik adierazi du 2018ko abenduaren 4an Marokoko poliziak atxilotu eta eraso zuela sare sozialetan El Aaiúngo manifestazioaren berri ematen aritzeagatik. Ginebran, Fronte Polisarioaren eta Marokoko Erresumaren artean Mendebaldeko Saharako gataska konpontzeko negoziazioak berriz hasi zirela-eta, manifestazioa deituta zegoen, eta kazetaria manifestazio horren berri emateko zegoen.

El-Khalidiren hitzetan, “jendea kalera irten zen gataska konpontzea bultzatzeko asmoarekin. Ni Smara etorbidean grabatzen ari nintzen, baina ez ziren ezta lau minutu ere igaro, eta atxilotu, kolpatu eta indarrez eraman ninduten poliziaren auto batera. Komisarian orduak igaro nituen, tratu txarrak jasaten eta galderei erantzuten”.

Mendebaldeko Saharako kazetariak egoera hori bizitzen ari dira Munduko gainerako jendeari lurraldean zer-nolako egoera bizi duten azaltzeagatik. El-Khalidik badaki bere lana arriskutsua dela: "Mendebaldeko Saharan giza eskubideen gainean egiten diren urraketen berri ematen ahalegintzen gara, eta horrek arrisku handian jartzen du gure segurtasuna. Atxiloketak eta torturak jasaten ditugu. Gure familiak mehatxatu eta presionatu egiten dituzte. Egin nuen delitu bakarra izan zen poliziak sahararren kontra egindako erasoak grabatzea; hori dela-eta, hiru hilabetetik 2 urtera bitarteko espetxe-zigorra izan nezake. Baina egin beharra daukagu Marokok ezarritako blokeoa hausteko".

Saharar aktibistak Marokok egiten duen lurraldearen militarizazioa ere salatu nahi izan du: "Mendebaldeko Saharatik lurraldea bakarrik axola zaie, ez jendearen egoera edota han bizi garenon giza eskubideak".

Nazha, beste hainbat saharar gazteen artean, Mendebaldeko Sahara okupatuaren gaineko blokeo mediatikoaren intentsitatea dela-eta, azken urteetan, blokeo hori hausteko eta nortasuna eraikitzeko kazetaritza hautatu duen beste gazte bat da. Ondorioz, aste honetan Bizkaira etorri da, Mendebaldeko Saharan bizi duten errealitate hain gogorraren berri emateko.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

LA ACTIVISTA Y PERIODISTA SAHARAUI NAZHA EL-KHALIDI RELATA EN LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA LA SITUACIÓN DE REPRESIÓN QUE ESTÁN VIVIENDO EN EL SÁHARA OCCIDENTAL

- **Hace unos meses la periodista fue agredida en plena calle y detenida por retransmitir con su móvil una manifestación. Nazha El-Khalidi denuncia el bloqueo informativo en las zonas ocupadas y la violación de los derechos humanos que están sufriendo.**

(Bilbao, a 29 de noviembre de 2019).- La Presidenta de Juntas Generales de Bizkaia Ana Otadui y apoderadas y apoderados de diferentes partidos políticos han mantenido un encuentro con la activista y periodista saharauí Nazha El-Khalidi en la sede de Juntas Generales en Bilbao. La periodista, que nació y vive en El Aaiún (localidad que forma parte de la ocupación marroquí del Sáhara Occidental), ejerce esta profesión desde 2010 como corresponsal de RASD TV y es miembro del grupo independentista Equipe Media.

La visita de la activista y periodista Nazha El-Khalidi a las Juntas Generales de Bizkaia ha sido para denunciar el bloqueo informativo que están viviendo en las zonas ocupadas y la violación de los derechos humanos que están sufriendo en el Sáhara Occidental por parte del gobierno de Marruecos. Nazha El-Khalidi ha estado acompañada por el delegado del Frente Polisario de Euskadi, Abdulah Arabi, por la saharauí Aichetu Yeslem Beissat que vive en Euskadi y por integrantes de Euskal Fonda.

Nazha El-Khalidi ha relatado cómo el pasado 4 de diciembre del 2018 fue detenida y agredida por la policía de Marruecos cuando informaba en las redes sociales de una manifestación en El Aaiún. La periodista cubría una manifestación convocada a raíz de la reanudación de negociaciones en Ginebra entre el Frente Polisario y el Reino de Marruecos para resolver el conflicto en el Sáhara Occidental.

Según El-Khalidi, “la gente salió a la calle para manifestar su apoyo a la resolución del conflicto. Yo estaba grabando en la Avenida Smara; no duré allí ni cuatro minutos cuando me detuvieron, me golpearon y me llevaron a la fuerza a un coche de policía. Estuve en comisaría horas, sufriendo malos tratos y bajo interrogación”.

Esta es una situación que están viviendo los y las periodistas del Sáhara Occidental por informar al resto del Mundo la situación que viven en el territorio. El Khalidi sabe lo arriesgado de su trabajo: “Intentamos visibilizar las violaciones de derechos humanos en el Sáhara Occidental, y eso supone mucho riesgo para nuestra seguridad. Sufrimos detenciones y torturas. Nuestras familias son amenazadas, presionadas. El único delito que cometí fue grabar las cargas policiales contra saharauis, y eso me puede costar de 3 meses a 2 años de cárcel, que es a lo que me pueden condenar. Pero lo tenemos que hacer para romper el bloqueo que impone Marruecos.”

La activista saharauí también ha querido denunciar la militarización del territorio por parte de Marruecos: “lo único que les importa del Sáhara occidental es el territorio, no la situación de la gente ni los derechos humanos de los que vivimos allí”.

Nazha es una de tantas jóvenes saharauis que, en los últimos años, dada la intensidad del bloqueo mediático sobre el Sáhara Occidental ocupado, ha adoptado el periodismo como una labor para romper el bloqueo y construir su identidad. Por ello ha venido esta semana a Bizkaia, para difundir la realidad tan dura que están viviendo en el Sáhara Occidental.